

BAKEA

Bakea zer da? Gaur egun, mundu guztiak darabil hitz hau ahotan: politikariek, idazleek, pentsalariek, hezitzaileek, artistek, kirolariek, etab. Betidanik, bakea “gerrarik eza” bezala definitu izan ohi da.

Azkeneko mendean, ordea, kutsu negatiboa duen definizio hori aldatu egin da. Bake hezkuntzaren arloan lan egiten dugunontzat, bakea ez da gatazkarik eza, zuzeneko biolentzia falta edo gerren gabezia. Aitzitik, pertsonen arteko harremanekin eta justizia sozialarekin loturik dago. Gure iritziz, Bakea eta Justizia bereiztezinak dira; justizia pertsonen artean eta ingurunearekin berdintasunezko harremanak egotea dela esan dezakegu, hainbat mailatan: afektiboa, ekonomikoa, sexuala, kulturala, etnikoa, hezkuntzazkoa eta erlijiosoa. Harreman horiek elkarrenganako errespetuan eta gizarte lankidetzan oinarrituta daude, eta autorrealizazioa dute helburu. Bakea eta justizia, beraz, txanponaren bi aldeak dira.

Bakea-Justizia, pertsonak norberarekin, besteekin zein naturarekin duen erlazio harmoniatsu eta dinamikoa da (ez da egoera geldirik bat).